ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

UDALBATZARRAK 2018ko APIRILAREN 24an EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

2018ko apirilaren 24an, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 19.30etan, Jon Umerez Urrezola Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Jon Umerez Urrezola

ZINEGOTZIAK : Jose Mª Aranzabe Urruzola
Jose Ramon Hernandez Cristobal
Onintza Gorostidi Murua
Xabier Mugika Letamendia
Uxue Etxebeste Eizagirre

Bere ezin etorria azaltzen du: Koldobika Jauregi Zinkunegi

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

1. **Aurreko bilkuretako akten onespena.**
   - **2018ko otsailaren 27an egindako ohiko bilkuraren akta.**
2. **Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
3. **Fakturak eta ordainketak.**
4. **2017 Ekitaldiko udal aurrekontu orokorraren likidazioaren berri ematea.**
5. **Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 2018ko 1. Eta 2. Hiruhilabeteari dagokion ekarpena burutzea, hala bada.**
6. **2017 urterako udal zergen hobari eskaeraren azterketa, hala bada.**
7. **Tolosaldeko Atariak aurkezturiko 2017 ekitaldiko diru-laguntzaren justifikazioaren onespena, hala bada**
8. **Kirol batzordeak, 2017 urtean jasotako diru-laguntzaren kitapenaren onespena, hala bada.**
9. **Kirol batzordeak eginiko diru-laguntza eskaeraren azterketa, 2018 urteari dagokiona.**
10. **2016 urteko Trakzio Mekanikozko ibilgailuen zerga errolda onartzea, hala bada.**
11. **2017 urterako langileen opor egutegiaren onespena, hala bada.**
12. **Alkizako "Baldosas Jarri" lursailean kokatuak dauden obra hondakinak kentzeko obra baimena eskaera, L.M.A.**
13. **Tolosaldea Garatzeni 2018 urteari dagokion ekarpena burutzeko**

eskaera onestea, hala bada.

14. **Aiztondo Mankomunitateak eginiko eskaeraren azterketa, hala bada.**
15. **Beste batzuk.**
16. **Erregu, galdera eta mozioak.**

.../...

LEHENEN PUNTUA
AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA

- 2018ko otsailaren 27ko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

Aktak Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

BIGARREN PUNTUA
ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Ondoren aipatzen diren Alkatetza Ebazpenak eman direla adierazi du Udaleko Behin Behineko Idazkari-Kontuhartzaileak, bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik:

14/2018 Alkatetza Ebazpena, martxoaren 19koa, 2017ko aurrekontuaren likidazioa onartzea, ebazten duena.

15/2018 Alkatetza Ebazpena, martxoaren 15ekoa, L.M.A. jaunari Alkizako herri bidea erabiltzeko baimena ematea, ebazten duena.

16/2018 Alkatetza Ebazpena, martxoaren 19koa, B.A. jaunaren izenean L.A. jaunak Herri bidea erabiltzeagatik jarritako fidantza bueltatzeko onespena ematea, ebazten duena.

17/2018 Alkatetza Ebazpena, martxoaren 21ekoa, A.B. jaunari Alkizako herri bidea erabiltzeko baimena ematea, ebazten duena.

18/2018 Alkatetza Ebazpena, martxoaren 22koa, J.A. andreari Alkizako herri bidea erabiltzeko baimena ematea, ebazten duena.

19/2018 Alkatetza Ebazpena, apirilaren 4koa, G.I. jaunaren izenean L.A. jaunak jarritako fidantza bueltatzeko onespena ematea, ebazten duena.

20/2018 Alkatetza Ebazpena, apirilaren 4koa, C.A. andrearen izenean L.A. jaunak jarritako fidantza bueltatzeko onespena ematea, ebazten duena.

21/2018 Alkatetza Ebazpena, apirilaren 4koa, J.M.O.U. jaunak eginiko eskaera onestea, hau da, bere baserriaren izena Aritzategi-Garaikoa berriro jartzea, ebazten duena.

22/2018 Alkatetza Ebazpena, martxoaren 22, Central Forestal S.A.U. ri 300 eurotako isuna jartzea, ebazten duena.

23/2018 Alkatetza Ebazpena, apirilaren 11an, A.B. jaunak herri bidea erabiltzeagatik jarritako fidantza bueltatzea, ebazten duena.

24/2018 Alkatetza Ebazpena, apirilaren 19koa, 2019 urterako Alkiza Udalerriko jaiegun bezala irailaren 8 eta 9 izendatzea, ebazten duena.

HIRUGARREN PUNTUA
FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

HARGOI	1.224,28
BIZIBIZIKI	975,00
LAVANDERIA LIZARRA	279,95
LAU HAIZETARA	700,00
MOVISTAR FIJO	87,25
MOVISTAR FIJO	76,40
TOLOMENDI	155,55
EUSKALTEL	242,08
M.URANGA	377,52
IBERDROLA	44,04
BIDATEK	164,39
FUNERARIA VASCONGADA	125,00
CALCOSA	157,30
EBA ERKIZIA	1.644,19
IMPOT-QUIMIA	267,82
SOLRED	57,00
BERRI LANTEGIA	6,35
LYRECO	201,08
GARAJE IBARRA	588,94

ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

ARGITU ASESORES	144,73
CORREOS	3,57
HARGOI	919,60
EGIMENDI	23,00
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	67,88
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	1.071,29
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	111,92
M.URANGA	2.373,11
IZFE	44,71
EBA ERKIZIA	1.671,06
SOS FIRE	587,58
SOLRED	58,60
CALPARSORO INDUSTRIAL	33,90
ARGITU ASESORES	161,23
EUSKALTEL	97,55
BANATZAILEA ELERTZALE	90,39
HONTZA LIBURUDENDA	213,99
ACSOL	78,61
ACSOL	101,34
DORRONSORO	37,10
BAZEN BEHIN CLOWN	400,00
BULEGOAK	237,87
ACSOL	420,14
ACSOL	524,97
ACSOL	90,52
ACSOL	152,12
ACSOL	40,85
ACSOL	138,65
ACSOL	30,50
ACSOL	53,46
ACSOL	91,83
ACSOL	114,57
ACSOL	239,28
BELAKO	30,00

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **17.830,06** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

LAUGARREN PUNTUA
2017 EKITALDIKO UDAL AURREKONTU OROKORRAREN LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA

Ondoren batzarkideei 2017 ekitaldiko Udal Aurrekontu Orokorraren likidazioaren berri ematen da, 2018/14 zenbakia duen eta 2018ko martxoaren 19an Alkate Ebazpenez onartua izan zena:

2018/14 DEKRETUA

Udal honen 2017ko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontuhartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

EBATZI DUT

Lehena.- Udal honen 2017ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

DIRUZAINTZA GERAKINA

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2017-12-31n:		107.865,74
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2017-12-31n:		43.571,75
Aurrekontuko zordunak :	37.385,15	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	6.186,60	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2017-12-31n:		18.524,87
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	2.074,84	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	16.450,03	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	0,00	
4.- Diruzaintzako gerakina guztira (1+2+3):		132.912,62
5.- Saldo kobragaitzak:		0,00
6.- Gehiegizko finantzaketa lotua:		0,00
7.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (4-5-6):		132.912,62

AURREKONTUKO EMAITZA

1.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	78.359,21
2.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	7.241,00
3.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:	32.152,09
4.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	0,00
5.- Aurrekontu emaitza (1+2+3+4):	117.752,30

KREDITU GERAKINAK

1.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	36.033,42
2.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:	42.600,59
3.- Kreditu gerakinak, guztira (1+2):	78.634,01

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.

BOSTGARREN PUNTUA
AIZTONDO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEARI 2018KO 1. ETA 2. HIRUHILABETEARI DAGOKION EKARPENA BURTZEA, HALA BADA

Ikusirik Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak aurkezturiko idatzia, non 2018 ekitaldiko 1. eta 2. hiruhilabetean sortu daitezkeen gastuei aurre egin ahal izateko Alkizako Udalak burutu beharreko ekarpena 21.000,00 eurokoa dela adierazten den. Ekarpena, Alkizako udalak eskatuta, ondoren zehazten den moduan banatzen da:

-Gizarte zerbitzuak: 12.000,00 euro
-Kultura: 9.000,00 euro

Ikusirik kreditu nahikoa aurreikusia dagoela.

Gaia aztertu ondoren, bertaratuek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 21.000,00 eurotako ekarpena burutzea 2018 ekitaldiko 1. eta 2. hiruhilabetean sortu daitezkeen gastuei aurre egiteko. Kontzeptu hauetan banatuta:

-Gizarte zerbitzuak: 12.000,00 euro
-Kultura: 9.000,00 euro

BIGARRENA.- 21.000,00 eurotako gastua onartzea.

SEIGARREN PUNTUA
2018 URTERAKO UDAL ZERGEN HOBARI ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik 2018 urterako udal zergen eta tasen hobarien deialdia onestu dela, ondasun higiezinen gaineko zergaren kasuan, famili ugariak izateagatik eta eguzki aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak instalatuta dituzten ondasun higiezinen kasuetan eskatu daiteke, eta Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren kasuan, famili ugaria izateagatik eta motorraren arabera eskatu daitezke.

Ikusirik Alkizako Udalak, 2018ko otsailaren 1ean deialdia zabaldu zuela, hobari edo bonifikazio eskaerak egiteko, azken eguna 2018ko otsailaren 28-a izan zelarik.

Ikusirik, goian aipaturiko epean hamabost hobari eskaera egin direla, hauetatik, 10 eskaera famili ugariak izateagatik eta eguzki aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak instalatuta izateagatik, ondasun higiezinen gaineko zergan, eta 5 eskaera, famili ugaria izateagatik, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergan.

Ikusirik, hamabost eskaera hauek baldintza guztiak betetzen dituztela aipaturiko hobariak jasotzeko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, Jon Umerez eta Jose Ramon Hernandez, alkate eta zinegotziaren abstentzioarekin, gehiengoz, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: J.R.H.. Jaunak egin duen 2018 urterako ondasun higiezinen gaineko zergaren hobari eskaera onestea, hau da, Kuota osoaren %25eko hobaria.

BIGARRENA: J.M.G. Jaunak egin duen 2018 urterako ondasun higiezinen gaineko zergaren hobari eskaera onestea, hau da, Kuota osoaren %25eko hobaria.

HIRUGARRENA: G.C. andreak egin duen 2018 urterako ondasun higiezinen gaineko zergaren hobari eskaera onestea, hau da, Kuota osoaren %25eko hobaria.

LAUGARRENA: I.U.U jaunak egin duen 2018 urterako ondasun higiezinen gaineko zergaren hobari eskaera onestea, hau da, Kuota osoaren %25eko hobaria.

BOSTGARRENA: I.Z.S. jaunak egin duen 2018 urterako ondasun higiezinen gaineko zergaren hobari eskaera onestea, hau da, Kuota osoaren %25eko hobaria.

SEIGARRENA: I.O. jaunak egin duen 2018 urterako ondasun higiezinen gaineko zergaren hobari eskaera onestea, hau da, Kuota osoaren %30eko hobaria.

I.O. jaunak egin duen 2018 urterako trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zergaren hobari eskaera onestea, hau da, kuota osoaren % 50eko hobaria.

ZAZPIGARRENA: A.M. jaunak egin duen 2018 urterako ondasun higiezinen gaineko zergaren hobari eskaera onestea, hau da, Kuota osoaren %30eko hobaria.

A.M. jaunak egin duen 2018 urterako trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zergaren hobari eskaera onestea, hau da, kuota osoaren % 50eko hobaria.

ZORTZIGARRENA: G.G.A. jaunak egin duen 2018 urterako ondasun higiezinen gaineko zergaren hobari eskaera onestea, hau da, Kuota osoaren %30eko hobaria.

G.G.A. jaunak egin duen 2018 urterako trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zergaren hobari eskaera onestea, hau da, kuota osoaren % 50eko hobaria.

BEDERATZIGARRENA: J.G.Z. jaunak egin duen 2018 urterako ondasun higiezinen gaineko zergaren hobari eskaera onestea, hau da, Kuota osoaren

%30eko hobaria.

J.G.Z. jaunak egin duen 2018 urterako trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zergaren hobari eskaera onestea, hau da, kuota osoaren % 50eko hobaria.

HAMARGARRENA: L.O.A. andreak egin duen 2018 urterako ondasun higiezinen gaineko zergaren hobari eskaera onestea, hau da, Kuota osoaren %30eko hobaria.

L.O.A. andreak egin duen 2018 urterako trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zergaren hobari eskaera onestea, hau da, kuota osoaren % 50eko hobaria.

HAMAIKAGARRENA: Erabaki honen berri interesatuei ematea.

ZAZPIGARREN PUNTUA
TOLOSALDEKO ATARIAK AURKEZTURIKO 2017 EKITALDIKO DIRU-LAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik Tolosaldeko Komunikazio Taldea S.M.-k aurkezturiko 2017ko ekitaldiko memoria eta aurrekontu kudeatua, Talde horrek eta Alkizako Udalak hitzartua duten 2017ko Lankidetza hitzarmenean adierazten den modura.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea S.M. –k aurkezturiko 2017 ekitaldiko memoria eta aurrekontu kudeatua onestea.

ZORTZIGARREN PUNTUA
KIROL BATZORDEAK, 2017 URTEAN JASOTAKO DIRU-LAGUNTZAREN KITAPENAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik Alkizako Udalak, 2017 urtean Kirol Batzordeari 1.920eurotako diru-laguntza eman ziola.

Ikusirik Kirol Batzordeak, Alkizako Udalean aurkeztu dituela, 2017. Urteari dagokion gastuen kitapena, ondorengoa izanik:

SAN ISIDRO

Frontenis Txapelketa:	

Trofeoak+ txapelak	730,00€
Mus txapela+ trofeoak	
Pelotak + nikiak	52,75€+ 40,84€+63,79€
Ginkana	132,05€+39,92€
GUZTIRA	**1.059,35€**

HERRIKO FESTAK

Pelota Txapelketa:	
Pelotak	
Trofeoak+ txapelak	535,00€+59,00€
Gaztak:	40,00€
Gaztetxoen Pelota	200,00€
GUZTIRA	**834,00€**

SAN MARTIN

Hamaiketakoa ostatu	157,00€
Mus eta Eskoba Txapelketa	289,88€
GUZTIRA	**446,66 €**

GASTUAK: Guztira 2.340,01€

SARRERAK: Udaletxea 1920,00€
Frontenis txapelketa 200,00€
Pelota txpelketa 8,00€

Geratzen zaigun dirua: -212,01€

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez ondorengoa,

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA.- Kirol Batzordeak, aurkezturiko 2017 Urteari dagokion gastuen kitapena onestea.

BEDERATZIGARREN PUNTUA
KIROL BATZORDEAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERAREN AZTERKETA, 2018 URTEARI DAGOKIONA

Ikusirik Alkizako Kirol Batzordeak eginiko eskaera, non azaltzen duten 2018 urterako prestatu nahi dituzten ekintzak burutu ahal izateko laguntza ekonomikoa behar dutela.

Ikusirik 2018 urteko aurrekontuetan, Alkizako Kirol Batzordeari esleitzeko 2.500,00 eurotako partida bat dagoela, 481.340.00.01 alegia.

Ikusirik 2018 urterako Alkizako Udalaren aurrekontuan partida nahikoa aurreikusi dela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Alkizako Kirol Patronatuari 2.500,00.- eurotako diru-laguntza ematea, 2018 urtean prestatu dituzten ekintzak burutu ahal izateko, udal aurrekontuetako 481.340.00.01 partidaren kargura.

BIGARRENA: 2.500,00.- eurotako gastua onartzea.

HIRUGARRENA: Alkizako Kirol Batzordeari jakinaraztea, urte bukaeran, urtean zehar eginiko ekintzei buruzko gastuen kitapena aurkeztu beharko dutela.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri Alkizako Kirol Batzordeari ematea.

HAMARGARREN PUNTUA
2018 URTEKO TRAKZIO MEKANIKOZKO IBILGAILUEN ZERGA ERROLDA ONARTZEA, HALA BADA

Ikusirik 2018 urteko trakzio mekanikodun ibilgailuen udal zerga kobratzeko errolda prestatua dagoela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Alkizako Udaleko 2018 urteko trakzio mekanikozko ibilgailuen zerga errolda onartzea.

BIGARRENA.- Alkizako Udaleko 2018 urteko trakzio mekanikozko ibilgailuen zerga jendaurrean ipintzea edonork aztertu eta egoki dituen alegazioak burutu ditzan.

HIRUGARRENA.- 2018 urteko trakzio mekanikozko ibilgailuen zerga ordaintzeko ondorengo borondatezko epea ipintzea: 2018ko maiatzaren 2tik uztailaren 2ra bitartean, biak barne.

HAMAIKAGARREN PUNTUA
2018 URTERAKO LANGILEEN OPOR EGUTEGIAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik Udal langileak aurkeztu dutela 2018 urterako lan eta opor egutegiak.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Udal langileak aurkezturiko 2018 urterako opor egutegien onespena.

HAMABIGARREN PUNTUA
ALKIZAKO BALDOSAS JARRI LURSAILEAN KOKATUAK DAUDEN OBRA HONDAKINAK KENTZEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, L.M.A.

Ikusirik L.M.A. jaunak, Alkizako “Baldosas Jarri S.L.” lursailean kokatuak dauden obra hondakiak kentzeko obra baimena eskaera egiten duela.

Ikusirik 2018ko apirilaren 6an, udal aholkulari Teknikoak eginiko txostenean dioena:

“ALKIZAKO “BALDOSAS JARRI S.L” LURSAILEAN KOKATUAK DAUDEN OBRA HONDAKINAK KENTZEKO ESKAERARI TXOSTENA

L.M.A.U. jaunak, Baldosas Jarriko lursailean dauden obra hondakinak kentzeko baimena eskatzen du, hondakinen garraioa eta kudeaketa eramaten duen baimendutako "Contenedores Sarasola" enpresaren aurrekontua aurkezten duelarik. Aurrekoa ikusirik, **ZERA ADIERAZTEN DUT**:

2016-eko martxoan Baldosas Jarriko eraikinean arriskutsu zeuden elementuak kentzeko udal baimena eman zen, baldintzak ondorengoak izanik;

"...Siendo esto así, se informa favorablemente la solicitud presentada siempre y cuando los escombros generados se sitúen a cubierto y sobre solera dentro del pabellón y la franja de protección de 15m junto al cauce del arroyo Arraia quede libre de cualquier instalación o edificación y se proceda a su restauración y recuperación ambiental."

2017-ko urtearen bukaeran egindako ikuskaritza batean, eraikinaren barruan gelditu ziren obra hondakinak estalpetik kanpora eta erreka aldera zabaldu direla ikusi zen.
Lan hauen etetea agindu ondoren, egoera zuzentzea eta legeztatzea eskatu zitzaion Baldosas Jarriko jabe berriari, L.M.A-ri, alegia.

Orain aurkeztu den eskaeran, obra hondakin hauek zabortegira erretiratzea planteatzen da. Lan huen kostu estimatua 3.100€-koa da.

Alkizako lur ez hiritargarria arautzen duen dokumentua 2006-ko azaroaren 6-ean Gipuzkoako aldizkari ofizialean azaldutako Hiri Antolaketako arauen aldaketa da.
Baldosas Jarri-ko lursaila, Alkizako erabilerarik esleitu gabeko lur ez urbanizagarrian kokaturik dago eta albotik pasatzen den Arraiagako erreka berriz, gainazaleko ura babesteko lur ez urbanizagarrian.

Gainazaleko ura babesteko lur ez urbanizagarriari buruzko 1.4 artikuluak honela dio;

> ***1.4. Art. Gainazaleko Ura Babesteko Lur Ez Urbanizagarria.*
>
> ***Lur Ez Urbanizagarriaren kategoria hori osatzen dute Arraia eta Alkizako ertzen bi aldeetako 15 m-ko zabalerako bide-zintek, muga-lerrotik neurtuta; bertan lurzoru naturala hondatzea, orotariko eraikinak edo instalazio finkoak eta desmuntagarriak ezartzea, lurra berdintzea edo mugitzea eta hondakindegiak edo zabortegiak ezartzea debekatuta dago.*** *Dena den, Euskal Autonomia Erkidegoko (Kantabriar alderdiko) Erreka eta Ibaietako Ertzen Antolamendurako Lurralde Alorreko Plana onartzen duen Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Sailak azaroaren 22an ezarritako 415/1998 Dekretuari eta Uraren Legearen testu moldatua onartzen duen uztailaren 20ko 1/2001 Errege Dekretu Legegileari*
> *jarraitu beharko zaie.*
> *Ezarritako mugez gain, ubideen alde bakoitzetik 100 metrorako eremuan, lur ez urbanizagarriari dagozkion eraikin, jarduera eta erabilerak soilik onartuko dira.*
> *Oro har, erreketako ertzetan landaredia ondo mantendua denez gero, bertako baldintza naturalak hondatu litzakeen ekintza oro egiteko, ingurumen fisikoko ezaugarriak mantenduko dituela segurtatu beharko da.*
> *Erreken ubideetan ez da aldaketa, estaldura edo zuzenketa artifizialik egin beharko, ez bada uholdeak saihesteko edo obra publikoak eraikitzeko. Kasu horietan ere, dagokion eskudun hidraulikoa izatea beharrezkoa izango da, baita eragin litezkeen kalteak konpontzeko azterketa bat egitea ere.....*

Baldosas Jarri, 165/2008 irailaren 30eko, lurzoru kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten lurzoruen inbentarioko dekretuan azaltzen da 20006-00001 zenbakiarekin.

Beraz, aurkeztutako lanak legez kanpo dagoen egoera zuzentzen duenez eta **errekaren ingurune-berreskuratzea egiten bada**, udal baimena ematea egokia dela iruditzen zait.

*Lanak irauten duten bitartean, legeek ezartzen dituzten arauzko segurtasun neurriak gorde beharko dira.

*Lanak amaitzean, eraispen-hondakinak behar bezala kudeatu izana egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira udaletxean."

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- L.M.A. jaunak eginiko eskaera onestu, hau da, Alkizako "Baldosas Jarri S.L." lursailean kokatuak dauden obra hondakinak kentzeko obra baimena ematea, betiere, Udal Aholkulari Teknikoak egindako txostenean jasotzen dituen baldintzak betetzen badira.

BIGARRENA.-L.M.A. jaunari jakitera ematea, Udal honetan 300,00 eurotako abala jarri beharko duela, hondakinen kudeaketa era egokian egin dela ziurtatzeko.

HIRUGARRENA: Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.

HAMAHIRUGARREN PUNTUA
TOLOSALDEA GARATZENI 2018 URTEARI DAGOKION EKARPENA BURUTZEKO ESKAERA ONESTU, HALA BADA

Ikusirik 2017ko abenduaren 19ko dataz, Tolosaldea Garatzen-ek aurkezturiko idatzia, non Alkizako Udalari 2018 urteari dagokion ekarpena 5.400,00 eurotakoa dela jakitera ematen du, lehenengo ekarpena, 2.700,00 eurotakoa burutzeko eskatzen duelarik. Bigarrengo ekarpena irailaren 30erako egin beharko delarik.

Ikusirik 2018ko Udal aurrekontuetako 422.943.02.01 partidan aurrekontu nahikoa aurrrikusten dela gastu honi aurre egiteko.

Gaia eztabaidatu ondoren, bertaratuek

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Tolosaldea Garatzen-i 2018 urteko ekitaldiari dagokion ekarpena onestea, 5.400,00 eurotakoa delarik, eta lehenengo ekarpena burutzea,

2.700,00 eurotako kopuruan. Bigarrengo ekarpena irailaren 30erako egingo delarik.

BIGARRENA.- Gastua 2018 urteko udal aurrekontuko 422.943.02.01 partidaren kargura egitea.

HAMALAUGARREN PUNTUA
AIZTONDO MANKOMUNITATEAK EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik, Aiztondo zerbitzuen Mankomunitateak aurkezturiko 2017ko ekitaldiko ekarpenaren kitapena, ondorengo emaitzak izan dituela:

2016 urteko defizita: 389,03 euro
2017 urteko superabita: 5.104,77 euro

Kontutan izanik Aiztondo zerbitzuen Mankomunitako udal ordezkarien adostasunez diru poltsa bat utzi behar dela Aiztondo Mankomunitatean, Alkizako Udalaren kasuan 6.400,00 euro izanik.

Hau guztia kontutan izanik Alkizako Udalak Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 1.295,23 eurotako kopuruko ekarpena egin beharko dio .

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- Aiztondo zerbitzuen Mankomunitateak aurkezturiko 2017 ekitaldiko ekarpenaren kitapena onestea.

HAMABOSTGARREN PUNTUA
BESTE BATZUK

15.1.J.R.A. JAUNAK EGINIKO ESKAERA AZTERTU, HALA BADA

Ikusirik, J.R.A. jaunak eginiko eskaera, non Arburu mendiko ustiapena egiteko errentari behin betirako bertan behera utzi nahi duela, 2018ko datarekin.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: J.R.A. jaunak eginiko eskaera onestu, hau da Arburu mendiko ustiapena bertan behera uztea, 2018ko datarekin.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.

15.2. BAKE EPAILEA ETA BERE ORDEZKOA HAUTATZEKO DEIALDIAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik 2018 urteko apirilaren 16an Euskal Autonomi Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Gobernu Idazkariak igorritako idatzia, non adierazten duen Alkizako Bake Epailea eta bere ordezkoa izendatuak izan ziren lau urteetako epea amaitzear dagoela eta Udalbatzarrak beste lau urtetarako izendatuak izan daitezen Bake Epaile berria eta bere ordezkoa proposatu behar dituela.

Ikusirik 2018 urteko apirilaren 23an Udaleko Behin Behineko Idazkari Kontu-hartzaileak idatzi duen txostenean dioena, zeinetan adierazten duen zein prozedura jarraitu behar den Bake Epailea eta bere ordezkoa hautatzeko eta zeintzuk diren hautagaiek bete beharreko baldintzak.

Gaia azterturik Udalbatzarrak aho batez ondorengoa,

ERABAKITZEN DU

LEHENA.- Larraulgo Udalerrian lau urteetarako izendatuko diren Bake Epailea eta bere ordezkoa hautatzeko deialdia egitea. Modu honetan hautagaiei legeak ezarritako baldintzaz gain ondorengoa baldintza galdatuko zaie: hautagaiak euskaraz jakitea.

BIGARRENA.- Deialdiaren iragarkia argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaleko Iragarki Taulan, web orrian eta Tolosako Lehen Instantzia eta Instrukzio Epaitegian. Aldi berean Larraulgo herrian zehar deialdiaren bandoa zabalduko da. Modu honetan izen emateko epea zabalduko da iragarkia aipatu den tokietan argitaratu eta gehienez Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hamabost lanegunetako epean.

HAMASEIGARREN PUNTUA
ERREGU, GALDERA ETA MOZIOAK

16.1.ASUNCION KLINIKAKO (INVIZA) LANGILE BATZORDEAK AURKEZTURIKO MOZIOAREN AZTERKETA, HALA BADA

ELA eta LABeko hautetsiez osatuta Inbizako langile batzordeak proposatutako mozioaren berri ematen da, ondorengoa diolarik:

"Asunzion Klinikako (Inviza) langile batzordeak ESKATZEN DU MOZIO hau azter dadila Alkizako Udalaren Udalbatzan eta deitzen ditugu Udal taldeak onartu dezatela.

Asunzion klinikak eskualdeko hospital publiko lanak egiten ditu E.S.I. aren barruan. Diru publikotik 20 milioi euroko diru laguntza jasotzen duen klinika pribatua da, eskualdeari osasun arreta eman asmoz.

2013 urtetik hitzarmen bat negoziatzen saiatzen ari gara, baina enpresaren jarrera, naiz eta osasun sailetik negozio seguru izan, eta beraien nahia dela akordiora iristea esan, bere jarrerarekin erakutsi du hori ez dela horrela.

Guk lan publikoa egiten dugunez, gure lan baldintzak osakidetzarekin berdinduak izan behar dutela uste dugu.

Ezin dugu ahaztu ospitale publikorik ez duen EAEko eskualde bakarra garela. Eta gure baldintzak prekarioak diren heinean eskaintzen den arretak ezin du kalitatezkoa izan.

Hau guztia dela eta, BORONDATE POLITIKO BATEZ ari garela uste dugunez, UDAL HONI ESKATZEN DIOGU:

1.-Hitzarmen duin bat sina dezatela eska diezaiola enpresari.

2.-Herritarron diruaren jarraipen zehatz bat egin dadila, kalitatezko osasun zerbitzu bat, eta lan baldintza egokiak berretsiko dituena.

3.-Berretsi dadila Tolosaldean kalitatezko osasun publikoa, doakoa, unibertsala eta gainontzeko eskualdeetako berdina izatea.

4.-Udalak eska dezala Osasun sailarekin dagoen hitzarmena bete dadila; bereziki azpiegitura, langileria eta 3.2.1-3.2.2-3.2.4-3.2.5-3.3.2-3.3.4 puntuetan.

5.-Bidali diezazkiela Udal honek onartu dituen erabakiak Gasteizko gobernuari."

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ELA eta LABeko hautetsiez osatutako Invizako langile batzordeak aurkezturiko mozioa bere osotasunean onesten du.

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 22.15 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.